

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak esnegintzarekin laneko mahai bat deituko du krisiari irtenbideak bilatzeko

Ekoizleek jasotzen duten esne-prezioa hobetzeko neurriak hartzea babesten du

Viernes, 04 de septiembre de 2015

Nafarroak esnegintzarekin laneko mahai bat deituko du krisiari irtenbideak bilatzeko, eta ekoizleek jasotzen duten esne-prezioa hobetzeko neurriak hartzea babesten du.

Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde, Komunitate Gaietarako Nekazaritza Politikako Kontsulta Kontseiluan parte hartu ondoren atzo Madrilan, baloratu du "Ministerioko arduradunek iragarritako neurriak egungo esne-krisiak eskatzen duen premiazko egoerari ez zaizkiola egokitzen, esaterako: ekoizpeen erakundeei babestea, elikadura-kateko funtzionamendua sustatzea eta hobetzea, berez oso zorpetuta dagoen sektore bati kredituak ematea, eta laguntza-neurriak Landa Garapeneko Programen bidez ematea edo Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB)% 50 aurreratzea urriaren 16an.

Alde horretatik, aipatu behar da Nafarroako esnegintza, Espainiako gainerako lekuetan bezala, defizitarioa dela. Foru Komunitatean estrategikotzat jotzen da, ekonomian duen garrantziagatik, nahiz lurraldeko elementu egituratzaile modura jokatzeko duen funtsezko paperagatik; izan ere, ustiapenen % 80 baino gehiago mendialdean edo gune kalteberan dago.

Gainera, Elizalde kontseilariak Ministerioak behi bakoitzeko proposatutako 300 euroko gutxieneko laguntza zalantzan jarri du; Gaztela-Leon, Kantabria eta Galiziako ustiapenentarako laguntza da bereziki, beste lurralde batzuetan prezioek behera egitea eragin dezaketela-eta.

Europako jarrerari dagokionez, kontseilariak "onartezintzat" jo du Nekazaritzako komisario Phil Hogan-en jarrera, gurin eta esne-hautsarako esku hartutako prezioak igotzeko eskaerak "eskaintzaren beharrezko doikuntza" atzeratuko zuela esatean. Elizalderen aburuz, adierazpen horiek eta esne-kuotak kentzeak eragindako ekoizpenaren arautze ezak, esnegintzaren estalitako berregituratze bat iradokitzen dute, Bruselatik sustatuta.

Gaur egun, Nafarroan dauden 192 ustiapenak ekoizpen-kostuaren azpitik saltzen ari dira. Nafarroako abeltzainek jasotzen duten prezioa 0.28-0.32 zentimo/litroko da; Ministerioak kalkulaturako ekoizpenarena, berriz, 0.34 zentimo/litroko da. Alde horretatik, Elizalde adierazi du, egungo joerari eusten bazaio, Nafarroako esne-ustiapenen egoera "eutsiezina" izango dela epe laburrean.